

## “Liburuak mailegatzeak eta berrerabiltzeak lagundu egiten du balioetan hezten”

Jesus  
Maria  
Sanchez

CEAPA Ikasleen Guraso Elkartearen Espainiako Konfederazioaren lehendakaria

CEAPA Ikasleen Guraso Elkartearen Espainiako Konfederazioak 12.000 guraso-elkarte biltzen ditu; irakaskuntza ez-unibertsitarioan ari diren ikasleen gurasoek osatzen dute, eta familiek Espainiako Hezkuntza Ministerioaren aurrean duten solaskide nagusia da. Jesus Maria Sanchez lehendakariaren ustez, krisi garaian “ez gaude dirua alferrik xahutzeko”. Horregatik, ikasliburuaren doakotasuna sustatzen duten politiken alde agertu da, eta oso ontzat jo du materialak mailegatzea eta berrerabiltzea oinarri duen erueda, “hori delako arrazionalena eta merkeena administrazioentzat”.

**CEAPAREN kalkuluen arabera, familiei zenbat kostako zaie eskola-sartzea ikasturte honetan?** Ikasliburuak direla, ariketa-koadernotxoak, papertegiko materialak, uniformeak, eta abar, Lehen Hezkuntzako ikasle bakoitzak, batez beste, 200 eta 250 euro artean gastatu behar izaten ditu, eta Bigarren Hezkuntzakoek 250 eta 300 euro artean.

**Dirutza horretatik zer portzentaje dagokie ikasliburuei?** Ikasturte hasieran egiten den gastuaren % 80 inguru, gutxi gorabehera.

**Familiek zer-nolako laguntza ofizialak jaso ditzakete administrazio autonomikoetatik ikasliburuak erosteko?** Eredu hedatuena ikasliburuak mailegatzea eta berrerabiltzea sustatzen duena da. Gaur egun horixe ezartzen dute ikasle guztientzat Aragoian, Andaluzian, Gaztela Mantxan eta Errioxan; Nafarroan, Euskal Autonomia Erkidegoan, Katalunian, Balearretan eta Kanarietan, berriz, guztiek ez, baina gehienek erabiltzen dute sistema hori.

**Zuzeneko laguntzak ere badira...** Bai. Zuzeneko laguntzak ere ematen zaizkie familiei, ikasliburuak eros ditzaten,

liburu-txekea edo liburu-bonua esaten zaio, eta 60 eta 120 euro arteko diru-laguntza izaten da, ikaslearen eta autonomia erkidegoaren arabera. Gaztela eta Leonen, Murtzian, Kantabrian, Valentzian, Asturiasen, Madrilen eta Galizian erabiltzen dute eredu hori, baina horietan guztietan ez zaie iristen ikasle kopuru berari, gehienetan laguntza familiaren errentak baldintzatzen du eta.

**Bi eredu horietatik zein da onena familientzat?** CEAPA mailegatzearen eta berrerabiltzearen aldekoa da, hori delako eredurik arrazionalena eta merkeena administrazioentzat, eta ikasle guztiei egiten dielako mesede. Inbertsio handia egin beharra dago, baina behin sistema hori ezarrita, diru dezente aurrezten da, eta baliabide publikoak hobeki eta eraginkortasun handiagoz erabiltzea dakar.

**Sistema horren aurkakoek behin eta berriz nabarmentzen dutenez, desabantaila pedagogikoak dauzka liburuak ez norberarenak izateak.** Guk, aldiz, uste dugu liburuak mailegatzea eta berrerabiltzea oinarri duen doakotasun-sistemak lagundu egiten duela balioetan hezten, eta erantzukizun eta ardura gehiagoz jokatzeko bide ematen diela ikasleei. Materiala ongi zaintzera behartzen ditu, haien atzetik datozen ikasleek berrerabiliko baitute gero. Oso garrantzitsua da hori ikasleen heziketa integrala lortzeko.

**Batzuetan, Baliabidez hobeki dabilzan familiek uko egiten diote sistema horri, eta erosi egiten dituzte ikasliburuak. Ikasleen arteko desberdintasunak sustatzen al ditu horrek?** Diru gehiago duten familia batzuek urtero erosi egiten dituzte beren seme-alabentzako ikasliburuak, eta horrek ikasleen arteko bereizkeriak sor ditzake. Irakasleen eta ikastetxeen ardura da hori eragozteak: ez lukete onartu behar ikastetxetik kanpoko materialak erabiltzerik.

**Eskolako materialetan egiten den gastuaren zati handi bat ikasliburuekin doazen ariketa-koadernotxoak erosteko izaten da. Ezinbestekoak al dira?** Nik ulertzen dut ariketa-koadernoak eta bestelako material osagarriak oso erosoak direla irakasleentzat, baina haiek ere sor dezakete beren materiala eta fotokopiak atera, ikasleek azpimarratu, idatzi eta ikasgelan lan egiteko erabil ditzaten. Egoera ekonomiko zaillean, administrazioek ez dute betetzen eskubide konstituzional oinarritutako bat: oinarritako hezkuntzak derrigorrezkoa eta doakoa izan behar duela.

**Zer gomendio emango zenieke familiei eskola-sartzean aurrezteko?** Ikasliburuak erosterakoan, tarte gutxi izaten da aurrezteko, baina beste zenbait materialekin, ordea, papertegikoekin, esaterako, murriztu dezakegu gastua, aurreko urtetik balio duena berrerabiltzen badugu. Erosketetan, kalitate-irizpideei jarri behar zaie arreta, eta ez modei. Adibidez, ikasleen pertsonaia kutunetako baten irudia duen bizkar-zorroa % 40 garestiago ere izan daiteke ohiko bat baino.

**Teknologia berriek lagun dezakete eskola-materialetan egiten den gastua murrizten?** Bestelako baliabideak erabiltzeak dirua aurrezten lagundu dezake, baina kontua ez da paperezko ikasliburuak ordezkatu eta haien lekuan ikasliburu digitalak jartzea. XXI. mendean, hezkuntza ezin da mugatu hezkuntza-material horietara; ikasliburuek kontsultarako materiala izan behar dute, informazio digitaleko beste iturri batzuekin batera, zeinak ugariak eta doakoak baitira. Baliabide ugartze hori eraginkorra izateko, irakaskuntza-metodologia ere aldatu egin behar da. Helburu nagusia ikasleei egun dagoen informazio mordotetan bilatu, aztertu eta egoki hautatzen erakustea izan behar da.

